



INIGO AZKONA

Jose Inazio Basterretxea Polo

EHUKO IRAKASLEA ♦

Gezi zuria

LANKIDEAK hil dizkirate sarri. Beste askoren artean, lau aipatzearren, gogoan dauzkat Urkiaga 1937an, Galindez 1956an, Portell 1978an, eta Galdeano 1985ean.

2015a ez da baketsu esnatu gremiokoentzat, hor da Parisko atentatua *Charlie Hebdo* aldizkariaren aurka. Ofizio arriskutsua omen da ikertzailearena, kontalariarena, berriemailearena; baina, arriskutsua, benetan arriskutsua, jendea da. Letrak ez du hiltzen.

ESATEA, ARAZO

Buruan darabilzuna esatearen aurkako eraso izan da Pariskoa, esateko ausardiaren aurkakoa. Pentsamendu eta bizimolde monolitikoak ez du inor desberdinik ez ikusi ezta entzun ere nahi; noranzko bakarrek trafiko-seinalea du atsegin: gezi zuria zirkulu urdinean.

Erlauntza tirokatu dute, ezta barik erlea bilatzen zutela. Parisen, jende adiementsua hil dute: iritzi bestelako, propio eta kritikoa zuena; beste zahagi bateko ardoa da iritzi berezi hori, eta hura islatzeko modua gustatzea ala ez. Jihadistek ekarri dute sega; baina, faxistak izan zitezkeen, edo estalinistak, edo mafiosoak.

Marrazki bat, hitz bat, eduki kultural bat kaleratzea baldin eta heriotzarekin zigortzeko modukoa bada

halakoentzat, dena, den-dena, da zigorgarri. Eta jazarri, ideia baino, jendea jazartzen du gezi zuriak.

ISILTZEA, HERIOTZA

Shock-adiuntza hauetan, bakearen eta segurtasunaren aitzakian, estatu poliziala indartu da berriz ere gure inguruan; eta, berdin zaie kontrolatzaileei herritarraren azalaren kolorea, ezpainen tamaina edo ilearen tintura... kontrola da Jainko.

Lapikoa frogatzeko nola, bakea eta askatasuna orain jarri behar dira surtan: islamofobia saihesteko bezala askatasun demokratikoak babesteko, moro bat ikusi eta ihesari emateko tentazioa baztertzeko bezala poliziaren gehiegikeriak larrutzeko.

Zerbait izatekotan, bakea eta askatasuna dira gizabanakoak aurrez diseinatutako akzio ebatzi eta determinatuak, pertsonen arteko harremanak eta bizikidetzak kudeatzeko. Kultura-aniztasunaren eta sendotasun demokratikoaren

joko-zelaian egiaztatu behar dira berba horiek. Eta, frogantza-lan horietan, kontraesanak lehertuko dira, jakina.

Baina, norbanako eta komunitate gisa hiltzea da gezi zuriak gidatutako pentsamendu eta bizimolde monolitikoen aurrean isiltzea. ■



Ofizio arriskutsua omen da ikertzailearena, kontalariarena, berriemailearena; baina, arriskutsua, benetan arriskutsua, jendea da. Letrak ez du hiltzen

XDZ



Joanes Etxebarria



KAZETARIA

Maskaradaren izenean, amen!

KRIKATZEA MAITE DUT, betitik, eta batzuetan ikusgarri bat ikusi gabe ere kritikatzeko; halako herrian egiten delako, halako gaia aipatuko delako, edo halako umore txarrez iratzarri naizelako. Funtsanean, halakoa naizelako.

Oraingoan ere ikusi gabekoa kritikatuko dut, baina ez gaiztakeria hutsez. Gai honetan barnatu nahi duenari Antton Lukuren *Libertitzeaz* liburua aholkatzen diot, nik azaletik aipatuko baitut. Aurten go maskaradak abiatu berri dira Idauze-Menditik, eta ene bizi laburrean sekula ikusi ala entzun ez nuen gisan, meza bate-

kin hasi dira. Alta, uste nuen erritu paganoa zela, eta mundua alderantziz ezartzeko ospatzen zirela inauteriak. Uste nuen botere harremanak, egun batzuetan baizik ez bada ere, pikutara igortzeko erabiltzen zirela gorriak eta beltzak, hots maskaradetakoa pertsonaiak. Lagunak Lukuren liburua itzultzen didanean (nahi dukalarik Lolüz!) hori guztia konfirmatuko dut.

Ez dut anartean maskarada ikusi, baina espero dut gero plazan, arratsaldeko jokoan, eliza pikutara igorri zutela... baina baditut dudak. ■

